



Usurbilgo Udala

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2016KO URRIAREN 25EAN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Irene Garcia Palacios.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Jone Urdanpilleta Urdanpilletak eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

***2016/10/13KO EZOHIKO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2016ko urriaren 13ko ezohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ARIZTITXO KALEA 8 ETXEAN IGOGAILUA BERRITU ETA ZERO KOTARA JAISTEKO UDAL BAIMEN EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2016-0361

ARIZTITXO KALEA 8 ETXEKO JABEKIDEEN ELKARTEAK, Ariztitxo kalea 8 etxean igogailua berritu eta zero kotara jaisteko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	Guztira: 48.240,84 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua)
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 541,80 €
	Fidantza (%120): 650,16 €

Eskaera aztertu ostean, udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, 2016ko urriaren 18an ALDEKO txostena eman du.

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA